

**PAZIENTE
TRAKEOTOMIZATUARENTZAKO
GOMENDIO-GIDA**



Osakidetza

DONOSTIALDEA ESI
OSI DONOSTIALDEA



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

Egileak

María Belen Ferreras Ibeas

Lucia Garate Echenique

Rosa Maria Otamendi Juanena

Amaia Hernando Uzkudun

Tere Zurutuza Zurutuza

Teresa Contreras Sáiz

Concepción Garbayo Lamaison

Elisabete Makazaga Loidi

Argitalpena

Konunikazioa

Donostialdea ESI

Lege gordailua: SS-648-2017

PAZIENTE
TRAKEOTOMIZATUARENTZAKO
GOMENDIO-GIDA

Donostialdea ESI
OSI Donostialdea

Zer da trakeotomia?	5
Zer da kanula bat?	5
Organismoaren alterazioak trakeotomia dela eta	6
Estomaren eta trakeotomiaren zainketa nagusiak	7
Kanularen aldaketa	7
Kanularen garbiketa	10
Muki-tapoia konponbidea duen eta prebenitu aitekeen arazoa	11
Beste zainketa orokor batzuk eta bizimodu aldaketak...	12
Zentro sanitario batera joateko edo 112 deitzeko zeinuak	14


Operatu egin zaitugu eta trakeotomia-kanula daramazu. Dokumentu honetan azaltzen dizugu zer den trakeotomia bat, haren zainketak eta konplikazioen zeinu eta sintomak, zure osasun-taldearekin kontsultatzeko.

ZER DA TRAKEOTOMIA?

Teknika kirurgia da. Lepoan behin behineko edo betiko zulo bat irekitzeko egiten da, trakea kanpoaldearekin konektatu ahal izateko. Zulo horri esker airea biriketatik atera eta irten daiteke. Zuloari estoma deitzen zaio.

ZER DA KANULA BAT?

Kanula airea trakeara pasatzen uzten duen tutu huts eta beheerantz kurbatutakoa da. Kanulak eragozten du trakearen eta kanpoaldearen arteko komunikazioa ixtea edo deformatzea.



ORGANISMOAREN ALTERAZIOAK TRAKEOTOMIA DELA ETA

- Sudurrak arnasten dugun airea berotzen eta hezetzen du. Zure kasuan, airea zuzenki pasatzen da zulotik biriketaraino. Horrek eragiten du muki gehiago sortzea (lehorragoa eta lodiagoa) eta jariatze eta ez-tul gehiago ere bai, jariakin gehiegikeria hori kanporatu ahal izateko.
- Airearen ahots-kordeetatik igaroko ez denez (estomaren gainetik daude eta), hitz egiteko gaitasuna galduko duzu aldi baterako. Trakeotomia edukitzeagatik ez da galtzen hitz egiteko gaitasuna, izan ere, badaude errehabilitazio metodoak eta ikasteko erak berriro hitz egiten lagun dezaketenak.
- Trakeotomiako kanula edukita aireak zuzenean ihes egiten du; eta ezinezkoa da arnasketari eustea, behatzez edo tapoi batez zuloa estali ezik. Abdomeneko muskuluak uzkuartzeko gaitasuna zailduta dago. Muskulu horiek beharrezkoak dira kaka egiteko edo pisuak altxatzeko. Gauzak horrela, abdomenarekin indarra egin behar duzunean zuloa behatzez estali beharko duzu.
- Biriketarako sarbide zuzen bat izanik, aireko partikula txikiak sartu daitezke oztoporik gabe, eta horrek ez-tula eta arnasketako zailtasuna sorraz ditzake. Hori dela eta, saihestu hautsa dagoen tokiak, aerosolak eta ura zuzen sartzea.

- ♦ Jarri zinta kanulan



- ♦ Sartu kanula lerde-zapia duen zulotik



- ♦ Jarri lubrikatzaile hidrosoluble tanta bat gaza batean eta zabaldu kanulatik (errazago sar dadin trakeostomatik).

Lerde-zapiak babesten du estomaren azala. Operazio ondoko lehenengo asteetan erabili ohi da jariakin asko egoten direlako. Gero, alde batean kotoi-ehuna eta bestean material iragazgaitza duten materialekin ordeztu daiteke, hala nola haurtxoen adur-zapiak, edo gaza bat erabil daiteke, estomaren inguruko azala babesten duena.

Nola aldatu kanula

- Jarri ispilu baten aurrean argi askorekin, estoma ondo ikusi ahal izateko.
- Kendu erabilitako kanula, eta bakar-bakarrik bota zakarrontzira zinta eta lerre-zapia.
- Bota kanula zikina ontzi zikinera.
- Garbitu estomaren azala serum fisiologikoz bustitako gazekin eta lehortu gaza lehor bat erabiliz.
- Begira estomari ea gorrituta dagoen, hazita, exudatua edo beste anomaliaren batekin. Beharrezkoa bada, krema-barrera aplikatu, azaleko narritadura eta mazerazioa saihesteko.
- Sartu kanula garbia eta finkatu lepoari zinta, zintaren eta larruazalaren artean behatz bat sartu daitekeela ziurtatuz.
- Aldaketaren ondoren, konprobatu esku bat jarritz kanularen aurrean aire turrusta handia ateratzen dela.



Kanularen garbiketa

Kanula eta materialak egoera onean mantentzeko urratsak honako hauek dira:

1. Ur beroan sartu 10-15 minutuz.
2. Kanpotik eta barrutik xaboi neutroarekin eskuilatu.
3. Uretan eragin.
4. Ondo lehortu eta ontzi garbian gorde.



Muki-tapoa konponbidea duen eta prebenitu daitekeen arazoa

Zer nabarituko dut? Zer egin dezaket muki-tapoiarekin?

Muki-tapoiak eragotzi dezake airearen sartu-irtena. Muki-tapoa izanez gero, nabaritu ditzakezu arnasketako zailtasuna, itomena eta zarata gehiago arnasa hartzean. Hori gertatuz gero, kendu kanula. Tapoia kanulan bazegoen, berehala sentituko zara hobeto. Jarri kanula garbi bat eta aire turrusta handia ateratzen dela konprobatu (esku bat jarriz estomaren aurrean).

Kanula kenduta ere, arnasketako zailtasunak jarraituz gero, sartu 2 ml serum fisiologiko estomaren barrura, eutsi arnasketari segundo batzuetan eta gero egin ez tul indarrez. Prozedura errepikatu tapoia kanporatu arte. Lortzen ez baduzu, deitu 112ra edo joan osasun-zentrora.

Muki-tapoiak ez agertzeko, komeni da gorputza ondo hidratatuta izatea eta giroko hezetasun maila egoki bat egotea.

BESTE ZAINKETA OROKOR BATZUK ETA BIZIMODU ALDAKETAK

Saihestu mukiak pilatzea edo trinkotzea

- Egon zaitez ondo hidratatuta litro eta erdi ur egunean edanez, medikuak kontrakoa agindu ezik. Jariakinak bigunak egongo dira horrela.
- Etxean saiatu hezetasun maila eta temperatura egokiak egoten. Lurrungailuak jarri etxean edo hezetzailak, berogailuek sortzen duten lehortasuna saihesteko.
- Paseoak laguntzen du jariakinak mugitzen eta kanporatzen.

Saihestu partikulak sartzea estomatik

- Kanula babestu eguneko garbitasunean. Ezin duzu gorputz osoa murgildu ur azpian. Dutxan ur zorrotadak kanularen azpitik mantendu behar duzu. Ilea garbitzean, estoma estali kokotsa jaitsiz eta zuloa esku batekin babestuz.
- Etxeko garbiketa aspiragailuz eta zapi bustiz egin, hautsak sakabanatu gabe.
- Ez erabili esprairik, aerosolik edo perfumerik.
- Ez erre, eta kea dagoen inguruneak saihestu.
- Ez erabili ilauna egiten zaion jantzirik.
- Bizarra egiten baduzu, estomaren sarbidea babestu toalla batez, ilerik sar ez dadin.
- Hautsa eta harea sartu daitezke estomatik, beraz, haizetik babestu eta hondartzan jarri zapi bat.

Eguneroko bizimodurako gomendioak

- Bizitza soziala egin dezakezu.
- Ez egin kirol akuatikorik.
- Jarraitu ahoa eta hortzak egunean hiru aldiz garbitzen. Kolutorioak ere erabil ditzakezu ahoa garbitzeko.
- Alkoholik gabeko edariak har daitezke jan bitartean, arazorik gabe.
- Harreman sexualak eduki daitezke. Agian jariakinak gehiagotu daitezke une horietan.
- Ez erre, ez edan alkoholik.

ZENTRO SANITARIO BATERA JOATEKO EDO 112

DEITZEKO ZEINUA

- Narritadura, gorritasuna edo hantura izenez gero, kanularen azalaren inguruan.
- Mukien kolorean, trinkotasunean edo usainean aldaketak nabaritzen gero.
- 38 °C baino tenperatura handiagoa.
- Tapoia ezin baduzu kanporatu.
- Kanula aldatu ondoren, honelakorik izanez gero:
 - o Odoljariora
 - o Arnasteko zailtasuna
 - o Hantura lepo aldean
 - o Kolore urdinxka ezpainetan
 - o Ezin baduzu kanula sartu